



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

OHZ-ren errolda onestea

Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritzako ordezkariak onartu egin ditu Katastrorako Errolda eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako errolda, eta jendaurrean egongo dira Udalaren Iragarki Taulan, 15 egunez, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Onespen hori oinarritu da arautegi honetan: 2/2005 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa; 3/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historiko Higiezinaren Foru Katastroari buruzkoa; 4/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa; eta Basauriko Udalaren 3 zenbakidun Ordenantza Fiskala, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duena.

Ondasun Higiezinaren Katastroaren erroldan sartzeko edo erroldatik kanpo uzteko egintzen aurka, edo erroldako datuak aldatzeko egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Basauriko Alkatetzan, hilabeteko epean, kontatzen hasita jendaurrean jartzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik, edo, bestela, erreklamazioa, Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan, hilabeteko epean. Ezin izango dira errekurtso biak aldi berean jarri. Hiru hilabete igarotzen badira ebazpenik gabe errekurtsoa jartzen denetik, ezetsizat joko da errekurtsoa, eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango da orduan, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Erroldaren jendaurreko epean jakinarazitako likidazioen aurka, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, Basauriko Alkatetzan, bai borondatez ordaintzeko epean, bai epe hori amaitu eta hurrengo hilabetean. Hiru hilabete igarotzen badira ebazpenik gabe errekurtsoa jartzen denetik, ezetsizat joko da errekurtsoa, eta administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da orduan, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean.

Halaber, aintzat harturik Zerga-bilketari buruzko Foru Araudiko 15. artikulua eta hurrengoak eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen 3. Ordenantza Fiskaleko 13. artikulua, Udal honetako zergadunei jakinarazten zaie ondoren azaltzen den moduan kobratuko dela Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko ekitaldiaren Erroldari dagokion kopurua (Borondatezko epean):

Ordaintzeko modua

Zergaren ordainketa helbideratuta badago, urteko ordainagiriaren erdia zordunduko du bankuak maiatzaren 2an, eta beste erdia, urriaren 7an. Zergaren ordainketa helbideratuta ez badago, urteko ordainagiri osoa ordaindu beharko da maiatzaren 2tik uztailaren 1era bitartean.

Oharrak

Inprimaki-sortarik jaso ez, edo berau galduz gero, interesdunek horren kopia lortu beharko dute Herriarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), eta aipatutako finantza-erakundeetako edozein finantza-bulegotan ordainketa egin.

Ordaintzeko epea eta tokia

Ordainketa egiteko finantza-erakundeak	— Abanca — Nafarroako Rural Kutxa — Kutxabank	— Eskudirutan, bezeroaren kontuan zordunduta edo kutxazain automatikoetan
	— Banco Sabadell	— Bezeroaren kontuan zordunduta edo kutxazain automatikoetan
	— Laboral Kutxa	— Bezeroaren kontuan zordunduta
	— Caixabank	— Kutxazain automatikoetan



Ordainketa helbideratze bidez egiteko agindua	— Herritarren Informazio eta Arretarako Bulegora etorrira	
	— Fidantza Erakunde Laguntzailean, aldizkako zerga bat ordaintzean	
Internet bidezko ordainketa	http://www.basauri.eus	— Basauriko Udaleko web orrian sartuta, jasotako ordainketa-gutunarekin, eta «Egoitza Elektronika – Nire Ordainketa» aukera erabilita — Ordainketa egingo da erakunde laguntzaileen on-line bankuaren erabiltzailearekin edo ordainketa-txartelarekin. Edo beste edozein Finantza Erakunderen ordainketa-txartelarekin, Erakunde Laguntzaile ez izan arren

Ordainagiriaren zenbatekoa borondatezko epean ordaintzen ez bada, zerga-zorra premiamendu bidez ordainduko da, eta zergadunek zerga ordaindu beharko dute lege ezarritako errekararekin, kostuekin eta berandutzako interesekin, aipatutako finantza-erakundeetan, Herritarren Arreta Zerbitzuak (HAZ) emandako ordainketa-gutunarekin (udaletxeko beheko solairuan). Ordaintzen ez badute, Udalak betearazte-bidetik ordainaraziko du.

Gomendioak

Herritarrei erosoago izan dakien, zergaren ordainketa helbideratzea proposatzen diegu. Horretarako, lehenik eta behin, jasotako dokumentu-sortako helbideratze-buletina bete, eta kobrantza kudeatzen duten finantza-erakunde bulegoetako batean edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) entregatu beharko dute. Bigarren kasuan, hau da, helbideratze-buletina HAZen entregatu nahi izanez gero, 2024ko apirilaren 22ra arteko epea izango dute hori egiteko; data horren ostean aurkeztuz gero, aginduak eragina izango du hurrengo ekitalditik aurrera.

Hala jakinarazten dugu, mundu guztia jakinaren gainean egon dadin eta xedatutakoa bete dezan.

Basaurin, 2024ko martxoaren 21ean.—Ogasun, Kontratazio eta Ondare Arloko ordezkaria (2899/2023 Dekretuaren bidez izenpea eskuordetzea), Berta Montes Beltrán